

**Erreferentzia kodea:** ES/NA/AACF/2/033

**Izenburua:** INFORMAZIO ETA TURISMOKO LURRALDE ORDEZKARITZA

**Datak:** 1939-1990

**Deskribapen maila:** Funtsa

**Bolumena eta euskarria:** 166 instalazio unitate

**Sortzailea:** INFORMAZIO ETA TURISMOKO LURRALDE ORDEZKARITZA

**Erakundearen historia:**

1951ko uztailaren 19ko Lege Dekretuaren bidez —Estatuko Administrazio Zentrala berrantolatzen zuena—, Informazio eta Turismo Ministerioa sortu zen, bi zerbitzu multzoz osatua: Herri Hezkuntzako Idazkariordetzaren mende zeudenak eta Turismo Zuzendaritza Nagusiaren mende zeudenak —Gobernazio Ministeriotik bereizitakoak—. Urte bereko abuztuaren 29ko Aginduaren bidez, lehenago Herri Hezkuntzako Ordezkaritzak zirenek izena aldatu eta Informazio eta Turismo Ministerioaren Probintzia Ordezkaritza izena hartu zuten. 1962ko azaroaren 19ko Aginduaren bidez, haien eskumenak ezarri ziren.

Azaroaren 28ko 3319/1974 Dekretuaren bidez, haien eginkizunak zehaztu ziren, bai eta Informazio eta Turismo Bulegoenak ere, eta, Informazio eta Turismo Ministerioaren 1975eko otsailaren 27ko Aginduaren bidez, hiru kategoriatan sailkatu ziren; Nafarroa bigarren kategorian sailkatu zuten. Turismo Bulegoak ere sailkatu ziren; Iruñeko Bulegoa bigarren kategorian sailkatu zuten.

Uztailaren 4ko 1558/1977 Errege Dekretuaren bidez —Estatuko Administrazio Zentraleko organo jakin batzuk berregituratzen zituen—, Kultura Ministerioa sortu zen eta ordura arte zeuden Informazio eta Turismo Ministerioko unitate guztiak atxiki zitzaizkion, salbu eta Errege Dekretu horrek berak Merkataritza eta Turismo Ministerio sortu berriari esleitzen zizkionak. Errege Dekretu horretan berariaz aipatzen zen Turismoko Estatu Idazkaritza bat sortuko zela, Turismoko Idazkariordetzaren barruan zeuden edo haren mendeko ziren eskumen eta unitate guztiak bere gain hartuko zituen. Aldi berean, Turismoko idazkariordearen kargua azkendu zen.

Merkataritza eta Turismo Ministerioaren 1978ko maiatzaren 24ko Aginduaren bidez —Turismoko Estatu Idazkaritzaren egitura organikoa eta eginkizunak garatzen zituen—, Nafarroako Probintzia Turismo Ordezkaritza sortu zen, bigarren kategoriako Ordezkaritza gisa sailkatua. Probintzian zeuden Informazio eta Turismo bulegoak atxiki zitzaizkion.

Urriaren 3ko 1996/1980 Errege Dekretuaren bidez, Garraio eta Komunikazio Ministerioaren menpe gelditu zen Estatuko Turismo Idazkaritza, harik eta ekainaren 19ko 1121/1985 Errege Dekretuaren bidez Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zitzaizkion arte Estatuko Administrazioak turismoaren arloan zituen eginkizun eta zerbitzuak.

**Funtsaren antolamendua:**

**033.01 ADMINISTRAZIOA**

- 033.01.01 Erregelamenduak eta memoriak
- 033.01.02 Turismo mugimenduaren estatistika
- 033.01.03 Korrespondentzia

**033.02 ONDAREA**

033.02.01 Ondasun higiezinaren kudeaketa

### **033.03 TURISMOAREN SUSTAPENA**

033.03.01 Sustatze eta bultzatze jarduerak

033.03.02 Informazio eta Turismo Bulegoak

### **033.04 TURISMO ENPRESEN ETA JARDUEREN ERREGULAZIOA ETA SUSTAPENA**

033.04.01 Turismo enpresen eta jardueren kontrola

033.04.02 Hoteletarako kredituak

033.04.03 Nekazari etxeak egokitzeko maileguak

### **033.05 IKUSKAPENA ETA ZEHAPENA**

033.05.01 Erreklamazioak eta zehapenak

#### **Sarrera baldintzak:**

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.